12. Edozelan ere, saritutako lanak Bilboko Udalak esku hartu barik argitaratuz gero, hizki deigarrietan agertu beharko dute zein sari jaso duten.

13. Modalitate bakoitzean 6.000 euro gordineko saria emango da. Diru-kopuru horri dagozkion atxikipenak egingo zaizkio, indarreko zerga-arauen arabera (Espainiar estatuko egoiliarrentzat, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, eta atzerriko egoiliarrentzat, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga).

14. Deialdi honetan parte hartzeak arauok osorik onartzen direla esan gura du. Oinarrietan araututa ez dauden gaietan, Bilboko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza aplikatuko da ("Bilboko Udalaren eta zuzenbide publikoko bere erakundeen eta entitateen deialdiaren bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra"; Bilboko Udalbatzak 2016ko ekainaren 30ean onartua eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2016ko uztailaren 20ko 138. zenbakian argitaratua ).

IRABAZLEEI ORDAINKETAK EGITEKO OHARRAK

1. **Espainiako lurraldean bizi badira**, hauek aurkeztu beharko dituzte:

1.1. Bilboko Udalari beren beregi emandako baimena, egiazta dezan erakundeak ez daukala zorrik Udalarekin, Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin (emango zaien ereduaren arabera). Ez badute baimenik ematen, dagokion zerga-agentziaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

1.2. Erantzukizunpeko adierazpena. Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 24-2. artikuluak onuradun izateko ezartzen dituzten debekuetako bat ere ez duela adierazten duena (emango zaien ereduaren arabera).

1.3. Bilboko Udalaren ordainketarik inoiz ez dutelako jaso Hartzekodunen Erregistroan inskribatuta agertzen ez diren pertsonek "Hartzekodunen Fitxa" behar bezala beteta aurkeztu beharko dute (emango zaien ereduaren arabera). Horrekin batera NAN/IFZ/pasaportea eta dirua sartuko den banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen edozein agiri ere aurkeztu beharko dituzte.

2. **Egoitza fiskala atzerrian** badaukate, hauek aurkeztu beharko dituzte:

2.1. Egoitza fiskalaren ziurtagiria, bizi den estatuan eskumena daukan agintari eskudunak egina.

2.2. Erantzukizunpeko adierazpena, Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 24-2. artikuluak onuradun izateko ezartzen dituzten debekuetako bat ere ez duela adierazten duena (emango zaien ereduaren arabera).

2.3. Bilboko Udalaren ordainketarik inoiz ez dutelako jaso Hartzekodunen Erregistroan inskribatuta agertzen ez diren pertsonek "Hartzekodunen Fitxa" behar bezala beteta aurkeztu beharko dute (emango zaien ereduaren arabera). Horrekin batera NAN/IFZ/pasaportea eta dirua sartuko den banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen edozein agiri ere aurkeztu beharko dituzte.

Bilbon, 2024ko otsailean

**KULTURA JASANGARRIA**
CULTURA SOSTENIBLE

BidebarrietaKulturgunea



**OINARRIAK**
BASES

# MIGUEL DE UNAMUNO XXV. SAIAKERA LEHIAKETA

## XXV PREMIO DE ENSAYO MIGUEL DE UNAMUNO

**2024**

1. Bilboko Udalak **MIGUEL DE UNAMUNO SAIAKERA LEHIAKETAREN XXV.** edizioaren deialdia egin du.

2. Nazionalitate eta leku guztietako idazleek har dezakete parte, 18 urtetik gorakoak badira.

3. Hizkuntza-modalitate bi jarri dira: euskarazkoa eta gaztelaniazkoa. Modalitate biotako batera soilik aurkeztu daiteke obra bakoitza.

4. Saiakeren gaia librea da eta pentsamenduaren edozein diziplinatakoa izan daiteke, baina ikuspegi sortzailea izan behar du, ez akademikoa. Modu berean, aurkezten den obra ezin da izan doktoretza-tesi baten edo ikerketa-lan baten transkripzio hutsa. Argitaratzeko, monografia forma izan behar du. Kontuan izan behar da epaimahaiak batez ere lanen estiloa eta egitura baloratuko dituela, bai eta atsegingarritasuna ere. Azkenik, lanek gai bakarra edota elkarrekin zerikusia duten zenbait gai garatuko dituzte, betiere osotasunari eutsiz. Ez dira onartuko artikuluen bilduma hutsak.

5. Saiakerak originalak izango dira eta argitaratu gabe egongo dira. Gerora argitaratuz gero aipatu beharreko inolako sari edo accesitik lortu gabekoak izango dira. Baldintza horiek guztiak epaia eman arte bete behar dituzte aurkezten diren lanek. Hizkuntza-modalitate batera aurkezten diren lanak beste hizkuntza batetik itzulitakoak badira, ez dira originaltzat joko. Lanak argitaratu gabeak edo saritu gabeak izateko baldintzari dagokionez, lana entregatu ostean aldaketarik gertatuz gero, horren berri eman beharko diote idazleek epaimahaiari.

6. Lanek gutxienez 100 orriko eta gehienez 250 orriko luzera izango dute, DIN A-4 motako orrietan idatziak, Times New Roman edo antzeko letra-mota erabilita, eta tamaina 12koa izanik. 1,5eko espazioa utziko da lerroen artean.

7. Lanak udalaren webgunearen bidez aurkeztu beharko dira:

   - www.bilbao.eus/premiounamuno
   - www.bilbao.eus/unamunosaria, euskaraz.

   Gainera, egileak honakoak egin beharko ditu:

   - Formularioa bete, bere datuekin.
   - Saiakera PDF formatuan erantsi, nortasuna adierazi gabe eta lanaren orrietan bera nor den argitu dezakeen aipamenik egin gabe.

8. Lanak aurkezteko epea **2024ko otsailaren 15ean** hasiko da eta **2024ko apirilaren 30ean** amaituko da.

9. Modalitate bakoitzeko epaimahai bat egongo da. Epaimahaiok oinarri hauek interpretatu ahal izango dituzte beharrezkoa bada, baita jarduteko arauak finkatu ere. Sariak emateko edo eman gabe uzteko ahalmen osoa izango dute. Epaimahaiaren erabakia ezin izango da eztabaidatu.

   Sariketa honen antolatzaileek bermatuko dute epaimahaikideek lanen egileak nortzuk diren jakin gabe baloratuko dituztela lanok.

10. Saritutakoek eurek joan beharko dute sari-banaketaren ekitaldira, horretarako jarriko diren toki, egun eta orduan; bertaratzea ezinezkoa badute, ordezkoa bidaliko dute. Sariak banatzeko ekitaldia **2024ko azken hiruhilekoan** izango da.

    Epaia Bilboko Udalaren webgunean argitaratuko da: **www.bilbao.eus**

11. Bilboko Udalak beretzat gordetzen ditu saritutako lanen ustiapen eskubideak, emandako sariaz gain ezer ordaindu barik, saria bera izango baita egingo den ordainketa bakarra eta osoa; horretarako, egileek hitzematen dute:

    a) Saritutako lanak argitaratzeko, banatzeko eta salgai jartzeko eskubideak lurralde-muga barik eta legez ezarritako gehieneko eperako lagatzen dituztela, merkaturatze-sistema, argitaratze mota eta euskarri guztietarako. Lagapen hori Bilboko Udalari bakarrik egingo zaio, epaia ematen denean hasi eta urte biko eperako.

    b) Bilboko Udalari eskumena ematen diotela egoki deritzen argitalpenak egiteko, bere kabuz edota argitaletxe pribatu zein publiko batekin egindako hitzarmenaren bidez. Argitalpen bakoitzeko ale-kopurua ere erabakiko du.

    c) Udalak eskumena izango duela saritutako saiakera-lanak beste hizkuntza batzuetara itzultzeko, jatorrizko hizkuntzakoak ustiatzeko eta erabiltzeko dituen eskubide berberekin.

1. El Ayuntamiento de Bilbao convoca la **XXV EDICIÓN DEL PREMIO DE ENSAYO MIGUEL DE UNAMUNO.**

2. Podrán concurrir autoras o autores de cualquier nacionalidad o lugar de residencia, mayores de 18 años.

3. Se establecen dos modalidades lingüísticas, euskera y castellano, pudiendo cada obra presentarse únicamente a una de las dos modalidades.

4. El tema es libre, y abierto a cualquier disciplina del pensamiento, pero deberá mantener un enfoque creativo y no académico. Asimismo, es imprescindible que la obra presentada no sea una mera transcripción de una tesis doctoral o trabajo de investigación, debiendo adoptar el carácter de monografía para su publicación y teniendo en cuenta que el jurado valorará especialmente el estilo y la estructura de los trabajos y que estos guarden la suficiente amenidad. Por último, las obras deberán desarrollar un tema único o diversos temas relacionados, manteniendo una unidad de conjunto, no admitiéndose las simples recopilaciones de artículos.

5. Los ensayos deben ser originales e inéditos, no habiendo sido galardonados en otros certámenes ni pueden haber obtenido accésits que obligarían a mencionar dicha circunstancia en caso de posterior publicación (requisitos todos ellos exigibles hasta el momento del fallo). No se admiten como originales obras traducidas de lengua distinta a la modalidad a la que se opta. Los autores o autoras están obligados a comunicar a la organización cualquier cambio respecto al carácter inédito y no premiado de su trabajo que se produzca con posterioridad a su entrega.

6. Las obras tendrán una extensión mínima de 100 folios y máxima de 250 (normalizados formato DIN A-4, tipo de letra Times New Roman o equivalente, cuerpo de letra 12), transcritos a 1,5 espacio.

7. Las obras se presentarán a través de la página web municipal:

   - www.bilbao.eus/premiounamuno
   - www.bilbao.eus/unamunosaria, en euskera.

   El autor o la autora deberá:

   - Rellenar correctamente el formulario con sus datos.
   - Adjuntar el ensayo en formato PDF, sin que conste su identidad, ni referencia explícita a datos de los que pueda deducirse claramente la autoría en ninguna de las páginas de dicho documento.

8. El plazo de recepción comenzará el **15 de febrero de 2024** y finalizará el **30 de abril de 2024**.

9. El Jurado, uno para cada modalidad lingüística, podrá interpretar las presentes bases cuando resulte necesario, determinar sus normas de funcionamiento y ostentará las máximas facultades en orden a la concesión de los premios o declararlos desiertos. El fallo del jurado es inapelable.

   La organización del presente premio garantizará que los miembros del jurado juzguen las obras sin conocer la identidad de los autores o las autoras de las mismas.

10. La persona premiada deberá asistir personalmente, o mediante representante, caso de resultarle imposible, al acto de entrega de premios en el lugar, fecha y hora que se señale a tal efecto. Dicho acto se celebrará en el **último trimestre de 2024**.

    El fallo se hará público en la página web del Ayuntamiento de Bilbao: **www.bilbao.eus**

11. El Ayuntamiento de Bilbao se reserva los derechos de explotación de las obras premiadas sin pago adicional alguno al de la propia cuantía del premio, constituyendo este la única y total remuneración, conviniendo sus autores o autoras a tales efectos:

    a) Ceder por el plazo máximo establecido legalmente, sin límite territorial y para cualquiera de los posibles sistemas de comercialización, modalidades y soportes de edición, los derechos de reproducción, distribución y venta de las obras premiadas. Esta cesión será en exclusiva para el Ayuntamiento de Bilbao durante el plazo de dos años a partir del fallo.

    b) Facultar al Ayuntamiento para la realización, por sí mismo o mediante convenio con el servicio editorial público o privado que él elija, de cuantas ediciones considere oportunas y con el número de ejemplares que en cada una de ellas decida libremente.

    c) Facultar al Ayuntamiento para la traducción de los relatos a otros idiomas, con los mismos derechos de explotación y uso que los relatos en la lengua original.

12. En todo caso, la publicación al margen del Ayuntamiento de los trabajos premiados, deberá ir acompañada de la mención, en caracteres relevantes, del premio obtenido.

13. La dotación del premio es de 6.000 euros brutos para cada una de las modalidades. A esa cantidad se efectuarán las retenciones fiscales que resulten obligatorias en virtud de la normativa fiscal vigente (Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas para residentes en el Estado español o Impuesto sobre la Renta de no Residentes para residentes en el extranjero).

14. El hecho de participar en la convocatoria supone la íntegra aceptación de estas bases. En lo no previsto en estas bases regirá con carácter supletorio la "Ordenanza general reguladora de las bases para la concesión de subvenciones mediante convocatoria por el Ayuntamiento de Bilbao y sus organismos y entidades de derecho público", aprobada en fecha 30 de junio de 2016 por el Excmo. Ayuntamiento Pleno y publicada en el BOB nº 138, de 20 de julio de 2016.

## ESPECIFICACIONES PARA PODER REALIZAR LOS PAGOS A LAS PERSONAS GANADORAS

1. Si son **residentes en el territorio del Estado español** deberán aportar:

   1.1. Autorización expresa al Ayuntamiento de Bilbao para que compruebe que la entidad no tiene deudas con este Ayuntamiento, así como a comprobar si está al corriente de sus obligaciones fiscales y con la Seguridad Social (según modelo que se facilitará). En caso contrario, deberá aportar los certificados de la Agencia Tributaria correspondiente y de la Tesorería General de la Seguridad Social.

   1.2. "Declaración responsable" de no estar incursa en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria prevista en el art. 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones, ni en la prevista en el art. 24-2º de la Ley 4/2005 para la Igualdad de Mujeres y Hombres (según modelo que se facilitará).

   1.3. Si no han recibido nunca un pago del Ayuntamiento de Bilbao y, por lo tanto, no figuran inscritas en el Registro municipal de acreedores deberán presentar, debidamente cumplimentada, la "Ficha de acreedores" (según modelo que se le facilitará) a la que se le adjuntará el DNI, NIF o Pasaporte y cualquier documento que acredite la titularidad de la cuenta bancaria donde deba realizarse el ingreso.

2. Si tienen **residencia fiscal en el extranjero** deberán aportar:

   2.1. Certificado de residencia fiscal emitido por la autoridad competente del país de residencia.

   2.2. "Declaración responsable" de no estar incursa en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria prevista en el art. 13 de la ley 38/2003, General de Subvenciones, ni en la prevista en el art. 24-2º de la ley 4/2005 para la igualdad de mujeres y hombres (según modelo que se facilitará).

   2.3. Si no han recibido nunca un pago del Ayuntamiento de Bilbao y, por lo tanto, no figuran inscritas en el Registro municipal de acreedores deberán presentar, debidamente cumplimentada, la "Ficha de Acreedores" (según modelo que se facilitará) a la que se le adjuntará el DNI, NIF o Pasaporte, y cualquier documento que acredite la titularidad de la cuenta bancaria donde deba realizarse el ingreso.

**Bilbao, febrero de 2024**